

¿Pensando en cómo ahorrar
en tu factura de la luz?

PUBLICIDAD

BIZKAIA

BIZKAIA | [MARGEN IZQUIERDA](#) | [MARGEN DERECHA](#) | [DURANGUESADO](#) | [COSTA](#) | [NERVIÓN IBAIZABAL](#) | [GIPUZKOA](#) | [LA RIOJA](#) | [MIRANDA](#)

Blas de Otero poesía lehiaketaren 2015eko edizioan saritutako poesia liburuen bi liburuki argitaratu dituzte

Mikel Etxaburu Osa ondarrutarraren 'Lo zaudela

zabaldu dizkizut begiak' eta Ramón Pérez Parejo Badajozeko poetaren 'Gremios' lanak dira

ELCORREO.COM

20 octubre 2016
00:35

Erein eta Devenir argitaletxeen bitartez, Blas de Otero Bilboko Hiria Poesia Lehiaketako 2015eko edizioan saritutako poesia liburuak argitaratu berri ditu Bilboko udalak. Mikel Etxaburu Osa ondarrutarraren 'Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak' (Erein arg.), eta Ramón Pérez Parejo Badajozeko poetaren 'Gremios' (Devenir arg.) lanak dira.

Ramón Pérez Parejo (Badajoz, 1967) Hispaniar Filologian doktore da Extremadurako Unibertsitateko Hizkuntza eta Literatura Didaktika sailean. Bere ikerketaren ildoak Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika, Haur eta Gazte Literatura, Zinea eta Hezkuntza, Literaturaren Teoria eta Espainiera Bigarren Hizkuntza gisa dira. Filologo moduan aditua da XX. mendeko bigarren erdialdeko espainiar poesian, Extremadurako poesian eta emakumeek idatzitako poesia latinoamerikar garaikidean.

Poesia liburu horretatik, sariketako epaimahaiak, jatorrizko planteamendua azpimarratu zuen, sakona edukiari dagokionez. Bertan estilo zaindua eta bertso neurtua erabiliz, subjektu poetikoa hainbat ahots bilakatuz/mozorrotuz doa, hainbat ofizio irudikatzen.

Mikel Etxaburu Osaren 'Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak' poesia



Mikel Etxaburu Osa eta Juan María Aburto.

PUBLICIDAD



liburuari dagokionez, bertsoek Niaren eta hiriko paisaiaren arteko lotura adierazten duten era berezia azpimarratu zuen epaimahaiak, emozioz betetako ibilbidea egiten duen ahots poetikoarekin.

Mikel Etxaburu Osa, Bilbon bizi den ondarrutarra Euskal Filosofian doktorea da, eta bi poesia liburu argitaratu ditu, 'Zu zara orain txoria' eta 'Hodeiak zapatetan'. Horrez gain, duela sei urtetik, irakasle da Mondragon Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Euskarazko eta gaztelaniazko kategorietan saritutako poemak biltzen dituzten bi liburukiak datozen egunetan egongo dira salgai, eta mailegurako prest Bilboko Udal Liburutegi Sarean.

Blas de Otero Poesia Lehiaketa eta Miguel de Unamuno Saiakera Lehiaketa urtero deitzen ditu Bilboko Udaleko Kultura Sailak. Lehiaketa horien helburua literatura jarduera eta talentu berrien agerpena sustatzea da, bi egile bilbotar horien memoria eta lana bizirik iraunarazteaz gain.

Bilbaopoesia

Poesia liburuen argitalpena bat dator egun hauetan Bidebarrietako Liburutegian ospatzen ari den eta Bilboko Udalak antolatzen duen Bilbaopoesia literatur jaialdiarekin. Gaurko eguna Blas de Otero poetari eskainiko zaio, idazlea Bilbon jaio zenetik ehun urte betetzen diren urte honetan. Horrela, goizean, Museo-Etxeen eta Idazleen Fundazioen

Elkartearen urteroko bilera egingo da, eta arratsaldean, Oteroren 'Redoble de conciencia' liburuaren inguruko poesia topaketa programatu da. Bertan, Fanny Rubio idazlea, Ramón Andrés saiakeragilea, Adolfo Celdrán kantautorea eta José Fernández de la Sota –Oteroren lana ondoen ezagutzen duen idazleetako bat– arituko dira, arratsaldeko 19:30etik aurrera, Bidebarrietako Liburutegiko ekitaldi aretoan.





TEMAS Zurekin Bizkaia , Zurekin Bizkaia destacadas

TAGS blas , otero , poesia , lehiaketaren , 2015eko , edizioan , saritutako , poesia , liburuen , liburuki , argitaratu , dituzte



Recibe nuestras newsletters en tu email

Apúntate

Deja tu comentario

PUBLICIDAD

NOTICIAS RELACIONADAS

Mercadonak oinarrizko elikagaiak emango dizkio Behartsuen Ahizpatxoak

Bilbobusek Gautxori Mikroipuinen Lehiaketa abiarazi du

Gidatzean telefonoa edo GPSa erabilita sortzen diren deskuiduak saihesteko

Gidatzean telefonoa edo GPSa sortzen dituzten deskuiduak saihesteko

LO MÁS

VISTO

COMENTADO

COMPARTIDO

- 1 La terrible pérdida del cantante Álex Casademunt
- 2 La polémica entrevista del Gran Wyoming que arrasa en las redes sociales
- 3 La ley que permite desheredar a los hijos duplica en un año las consultas en las notarías
- 4 La novia del príncipe Harry arrasa en varias páginas porno

PUBLICIDAD



6 Rioja Reservas at half price!

PUBLICIDAD



PUBLICIDAD

vinoselección el placer del vino

6 Rioja Reservas at half price!

£90 market price

50% Discount

£45 6 bottles all included

Free delivery to UK Mainland

£0

EL CORREO

DIARIO EL CORREO, S.A. Sociedad Unipersonal.
 Registro Mercantil de Bizkaia Tomo BI-531, Folio 1, Hoja BI-4140-A, Inscripción 1 C.I.F. A-48536858
 Domicilio social en c/ Pintor Losada 7 48004 Bilbao. Contacto.
 Copyright DIARIO EL CORREO, S.A, BILBAO, 2008.
 Incluye contenidos de la empresa citada, del medio Diario El Correo, S.A.U y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilizacitotal o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

vocento

ABC.es	El Norte de Castilla	Las Provincias
ABCdeSevilla	DiarioVasco.com	El Diario Montañés
Hoy Digital	Elcomercio.es	La Voz Digital
El Correo	Ideal digital	Laverdad.es
La Rioja.com	SUR.es	Leonoticias.com
Clasificados	Finanzas	Mujerhoy
Infoempleo	Autocasión	Pisos.com
Formación	11870.com	FS Gamer